



Ebazpena, 2021eko otsailaren 15koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendariarena, zeinaren bidez behin betiko ebazten baita Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroetan (Berritzeguneak eta Ingurugelak) 2020/2021 ikasturtean hainbat lanpostu zerbitzu-eginkizunetan edo behin-behineko esleipenean betetzeko deialdia.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendariaren 2020ko abenduaren 14ko Ebazpenaren bidez, deialdia egin zen Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroetan (Berritzeguneak eta Ingurugelak) 2020/2021 ikasturtean hainbat lanpostu zerbitzu-eginkizunetan edo behin-behineko esleipenean betetzeko.

2021eko otsailaren 2ko Ebazpenaren bidez, deialdi hori behin-behinean ebatzi zen.

Era berean, deialdiaren oinarrietako zortzigarren artikulua araber, erreklamazioak aztertu ondoren edo halakorik ez balego, Langileak Kudeatzeko zuzendariak deialdiaren behin betiko ebazpena argitaratuko du, hautagai bakoitzari emandako azken balorazioak adierazita, bai eta hautatutako pertsonen, baztertutakoen eta hutsik gera daitezkeen lanpostuen behin betiko zerrenda ere.

Hala, aurkeztutako erreklamazioak aztertu eta balorazio-batzorde orokorrak egindako proposamena aztertu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehena.- Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratzea esleipenen, bazterketen, emandako puntuazioen eta lan-poltsako kideen behin betiko zerrendak. Zerrenda horiek I., II., III. eta IV. eranskinetan daude jasota, hurrenez hurren.

Bigarrena.- Deialdi honen ondorioz esleitutako zerbitzu-eginkizunek edo behin-behineko esleipenek ondorio ekonomiko eta administratiboak izango dituzte 2021eko otsailaren 22tik aurrera (astelehena). Egun horretan sartu beharko dute interesdunek destinoko zentroetan, eta, bestela, zerbitzu-eginkizuna edo esleitutako behin-behineko esleipena galdu ahal izango dute, behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik.

ERREKURTSOAK

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, betiere Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, 112.1 artikuluaekin lotuta.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 15a



HEZKUNTZA SAILA

Blanca María Guerrero Ocejo
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA